

ZG PRO Zinegoak Bilboko LGTBIQ+ Zinema eta Arte Eszenikoen Nazioarteko Jaialdiaren industria-programa da. Sei edizio daramatza LGTBIQ+ zinemaren eta haren sorkuntzan, ekoizpenean eta banaketan parte hartzen duten pertsonen ikusgaitasuna eta sustapena lantzen, ikus-entzunezkoaren eta kulturaren bidez gizarte-eraldaketa lortzeko premisari jarraituz.

Programa hau queer zinema ekoizpen-esparruan bultzatzeko espazio espezifikoak sortzeko helburuarekin jaio zen. Beste errealitate batzuen ahalduntzea eta gure ingurunearekin harremantzeko moduen aldaketak islatzen dituen zinema sustatzea du xede.

ZG PROk Europako Hegoaldeko LGTBIQ+ Jaialdien Sarearen babesa du (Queer Lisboa eta Queer Porto, Mix Milano, Parisko Chéries-Chéris, Thessaloniki International GLAD Film Festival eta Zinegoak jaialdiek osatua), baita Estatuko LGTBIQ+ Laborategien Sarearena ere (FIRE!! Bartzelonako LGTBI Zinemaren Erakusketa eta Fundación Triánguloren laborategiak: Queercinemad, Cinhome, Fancinegayqueer, Andalesgai eta Zinegoak). Azken horiek, hirugarren urtez jarraian, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekin elkarlanean jarraitzen dute.

AUKERATU AHAL DIREN PROIEKTUAK

ZG PRO LABen honako proiektuek parte hartu ahal izango dute:

- A) Garapen-fasean dauden film ertain edo luzeen proiektuak, hasierako fasean, gidoiaren lehen bertsioa eta proiektuaren dosierra dutenak.
- B) Postprodukzio-fase aurreratuan dauden film ertain edo luzeen proiektuak (errodatzeta hasita, muntaketa-fasean, etab.).

Gehienez 6 proiektu hautatuko dira, honako baldintza hauek betetzen dituztenen artean:

- LGTBIQ+ gaiei heldzea.
- Garapen, produkzio edo postprodukzio fasean egotea.
- Espainiako estatuan bizi diren 18 urtetik gorako errealizadore edo ikus-entzunezko enpresen presentzia izatea.
- Ekoizle baten presentzia positiboki baloratuko da.

Garapen-faseko proiektuek aurkeztu beharrekoa:

- Fitxa teknikoa.
- Sinopsia eta teaser-a (ahal bada).
- Espainiako estatuan bizi diren 18 urtetik gorako errealizadoreen presentzia.
- Ekoizlearen presentzia positiboki baloratuko da.
- Materiala gaztelaniaz edota euskaraz aurkeztu beharko da.

Postprodukzio-faseko proiektuek aurkeztu beharrekoa:

- Fitxa teknikoa
- Sinopsia
- Teaser-a (gehienez 10-15 minutu)
- Espainiako estatuan bizi diren 18 urtetik gorako errealizadoreen presentzia
- Ekoizlearen presentzia positiboki baloratuko da.
- Materiala gaztelaniaz edota euskaraz aurkeztu beharko da.

FUNTZIONAMENDUA

ZG PROko taldeak gehienez sei proiektu hautatuko ditu, eta ekainaren 26an pitching formatuan aurkeztuko dira Azkuna Zentroko Iparraguirre aretoan. Proiektu bakoitzak 20 minutuko aurkezpena izango du, eta ondoren epaimahaikideek egin nahi dituzten galderak botako dituzte.

Egun berean, proiektuek buruz buruko 3 eta 5 saio artean izango dituzte epaimahaikideekin, estatuko

eta nazioarteko sektoreko agente espezializatuekin osatua egongo dena.

Horrez gain, ekainaren 25ean LGTBIQ+ kultur eta arte munduko erreferenteekin antolatutako masterclass jardunaldi batean parte hartuko dute.

Bi jardunaldietara bertaratzea nahitaezkoa izango da.

Zinegoakek ekainaren 24tik 27ra bitartean Bilbon izango diren bidaia, ostatu, gosari eta bazkari gastuak estaliko ditu.

Hautatutako proiektuek ZG PROren irabazlearen garaikur irudia sartu beharko dute filmaren kredituetan, baita laborategiko babesleena ere, hala eskatuz gero. Parte-hartzaileek baimena ematen dute proiektuaren eta taldearen irudiak jaialdiaren esparruan zabaltzeko.

IZEN-EMATEA

Izena emateko epea martxoaren 1etik apirilaren 30era egongo da zabalik.

ZG PRO 2026 INCOPRODUCTION plataformaren bidez kudeatuko da, eta parte hartu nahi duten proiektuek bertan eman beharko dute izena.

<https://incoproduction.com/markets/zinegoak-pro-2026/detail?locale=es>

SARIAK

- **ZG PRO LABORATEGIA Saria, Triodos Banken babespean**, 3.000 €-ko diru-zuzkidurarekin.
- **ZG PRO Industry SSIFF Saria**. Hiru egunez Donostiako Nazioarteko Zinemaldira (SSIFF) joateko bidaia-poltsa. SSIFFek ostatua eta industria-akreditazioa estaliko ditu, eta Zinegoakek joan-etorri eta mantenu gastuetarako bidaia-poltsa eskainiko du. Ekimen hau Estatuko LGTBIQ+ Laborategien Sareak garatu du, SSIFFekin lankidetzan.
- **ZG PRO Neurads Saria**. Neurads ekoiztetxearen zinema-atalak eskainitako zazpi aholkularitza-saioz osatutako prozesua, ikuspegi queerra duten zinema-proiektuen garapenera bideratua. Edukia saritutako proiektuaren egoerara egokituko da: sorkuntza, gidoia, ekoizpena edo laborategi, laguntza-deialdi eta inbertsoreentzat materialen prestaketa.

• ZG PRO Music Library Saria.

AudioNetwork eta AltMusic ekoizpen-katalogoetarako sarbidea duen tarifa laua, baita 360° musika-gainbegiratze zerbitzuak ere. Musika komertzialaren eskubideen negoziazioan eta soinu-efektuen hornikuntzan deskontuak barne hartzen ditu. Gutxi gorabeherako balioa: 1.500 €.

Sariak zinema-arloan diharduten profesionalek osatutako epaimahai batek emango ditu. Epaia ekainaren 26an jakinaraziko da, eta ofizialki ekainaren 29ko amaiera-galan entregatuko da.

***DIRU-SARIAREN BALDINTZAK

Diru-saria 2026ko laugarren hiru hilabete egingo da banku-transferentzia izendun bidez. Epaia jakinarazi ondoren, banatzaileak, ekoiztetxeak edo proiektuaren arduradunak ordainketa izapidetzeko beharrezko dokumentazioa eta datuak bidali beharko dizkio antolakuntzari. Gehienez 6 hilabeteko epean dokumentazioa jasotzen ez bada, dagokion zenbatekoa erreklamatzeko eskubidea galduko da.

OINARRIEN ONARPENA

Proiektu bat aurkezteak aurreko oinarriak osorik onartzea dakar, baita jarduera honen izaeragatik sor daitezkeen ezustekoen aurrean antolakuntzak hartzen dituen erabakiak ere.

HARREMANA

Deialdiari buruzko informazio gehiago:

zgpro@zinegoak.com

Plataformari buruzko zalantza teknikoak edo gorabeherak:

info@incoproduction.com